

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren atal nagusienetako bat bezeroak dira. Bereziki gure enpresaren helburua gazteei laguntzea da, orduan gure enpresaren ideia aurrera eramateko gazteak beharko ditugu. Hasieran, Gipuzkoako ikastoletara joango gara klaseak ematera, izan ere, guretzat oso garrantzitsua da guk ezagunak egitea, horrela gazte gehiago kontzientziatuko ditugu eta jende gehiagok ikasiko du beste modu bateko bizitza bat independenteagoa.



Gure enpresak ez du produkturik saltzen baizik eta zerbitzu bat eskaitzen dugu, hortaz, gure bezero bakarrak ikastolak eta haien ikasleak izango dira, honek ez du esan nahi etorkizunean ez dugunik gure enpresa zabalduko beste leku batzuetara, baina hasieran horrela mantenduko gara.

Gure bezeroak ikastolak direla argi geratu da baina ikastolen barruan ez diegu kurtso guztiei klaseak emango. Gu batez ere DBHko 4. mailan zentratuko gara.

Uste dugu 15/16 urteko neska-mutilak tailer hau ezagutu behar dutela. Jada helduagoak dira eta etxeko gauza sinpleenak erabiltzen jakin beharko lukete. Badakigunez klase emango diegun ikasle gehienak ez dutela ezta gauza sinpleenak egiten jakingo, beraz tailerra ezagutarazteko aukera emango diegu.

Zergatik DBH 4.mailako ikasleak eta ez beste kurtsoetako edozein maila? Galderaren erantzuna argi daukagu, lehen esan dugun bezala, 15/16 urteko ikasleak, helduagoak dira eta uste dugu gure tailerra beraientzat benetan lagungarria izango dela. Adin horretan ikasteko garairik onena dela uste dugu, gainera beraien derrigorrezko azken urtean daude, hortaz beraiek baino zaharragoak direnak baino askoz atentzio gehiago jarriko dute guregan. Adin hau aukeratu dugun arrazoietako bat unibertsitatera joateko gutxi geratzen zaielako da. DBH 4.mailan daudenez ez daukate egin behar garrantzitsurik eta denbora libre gehiago dute hortaz, unibertsitatera iristerakoan eguneroko gauza sinpleenak ikasita edukiko dituzte eta beraien kabuz bizitzeko gaitasuna edukiko dute gure tailerraren bitartez oinarri bat izango dutelako.

Ez diegu beste kurtsoetako edozein mailari tailer honetako klaseak eman nahi bi arrazoiengatik. Alde batetik, 15-16 urtekoak oso gazteak dira oraindik, eta ez dute lantegi horren beharrik; asko falta zaie independenteak izateko. Bestalde, uste dugu batxilergoko ikasleek ez dutela denborarik tailer honetan parte hartzeko; beraz, tailerra DBHko 4. mailan eskaintzen badugu, ikasleek oinarri bat izango dute.